

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko martxoaren 4a

21 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarriei buruzkoa (3. or.).
- Foru lege proiektua, Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriari aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (5. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko N-121-A errepidea hobetzeko, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua (6. or.).
- Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea aldatzekoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua (7. or.).
- Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (9. or.).
- Foru Lege proposamena, Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (10. or.).
- Foru Lege proposamena, Ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (10. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuako kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa. Zuzenketak aurkezteko epea (11. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritza, abeltzaintza eta elikadura arloetako laborategi ofizial bateratua sortzekoa. Tramitera ez onartua (11. or.).
- Foru Lege proposamena, Heroinak tratamendu terapeutiko gisa duen eraginkortasunari buruzko entsegu klinikoak egiteari buruzkoa. Tramitera ez onartua (12. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, generoko indarkeria gainditzeko eta emakumeen parte-hartze politikorako aukera-berdintasunaren politikari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (13. or.).

- Jabeldura, Nafarroako Gobernua aurrera eramaten ari den politika ekonomikoari buruzkoa, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak egina (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du euskararen normalkuntzari dagokionez Nafarroako Gobernua egiten ari den hizkuntza politika, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babestu, sustatu eta bultzatzen du haurrek amaren esnea hartzea, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela atzerriko hizkuntzen irakaskuntzaren kalitatezko eskaintza bat bermatzea, horretarako Hizkuntza Eskola Ofizialari behar diren bitartekoak emanez, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da telefono deiak hartzeko zerbitzua berriz ere Ekonomia eta Ogasun Departamentuko funtzionarioen eskuetan uzteko, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua (18. or.).
- Adierazpen politikoa, Mendebaldeko Saharan erreferenduma egitearen aldekoa. Eledunen Batzarrak onetsia (19. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Zabalguneko Oinarrizko Osasun Laguntzako Etxeari buruzkoa, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina (20. or.).
- Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko ur-instalazioak eta hodiak berritzeari buruzkoa, Batasuna Parlamentuko Taldeak egina (21. or.).
- Galdera, euren goi karguen izendapenen berri eman ez duten sozietate publikoei buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (22. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Itzulpen lagunduko Trados programa ezartzeko aholku-emate teknikoko zerbitzu bat esleitzeko proposamena (23. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarriei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Foru Diputazioak, 2002ko otsailaren 11n hartutako erabakiaren bidez, 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarriei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 125. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1go.- 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarriei buruzko Foru Lege proiektua premiazko prozeduraz bideratzea.

2gn.- Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Industria, Lan, Merkataritza eta turismo Batzordearen esku uztea.

3gn.- Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik zortzi egun balioduneko epea irekiko da, 2002ko martxoaren 14ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Plana finantzatzeko neurri osagarriei buruzko Foru Lege proiektua

Nafarroako Gobernuak eta Foru Komunitatean ordezkari gehien dituzten enpresaburu elkarte eta sindikatuek, alegia, Confederación de Empresarios de Navarra, Unión General de Trabajadores de Navarra eta Nafarroako Langile Komisioek, izenpetu duten 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Planak neurri eta ekintza asko biltzen ditu bere helburuak lortzeko. 2002ko ekitaldian haiek egiteko baliabide publikoek 141,7 milioi euro egingen dute.

Nafarroako Gobernuak konpromisoa hartu zuen behar finantzario horiek betetzeko eta Nafarroako Parlamentura igorri zen 2002ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko proiektuan zehatz-mehatz bildu ziren. Aurrekontua onetsi ez zenez, Enplegurako Planeko neurri garrantzitsu batzuk finantzaketarik gabe gelditu dira.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 41. artikuluko 1. idatz-zatiak agindu bezala, Nafarroako Gobernuak, posible denean, Foru Lege horretan aipatzen diren aurrekontu-aldaketen bidez, Enplegurako Planaren beharrak finantzatzeko 2002rako luzatu den 2001eko Aurrekontuetan bilduriko kredituetan aski hornitu ez badira. Adibidez, inbertsio eta enplegurako fondo galdurako dirulaguntzarako kredituak. Izan ere, kontusail hori, aurrekontu luzatuan Enplegurako Planean baino 12,48 euro gutxiago baditu ere, handitzen ahal denez, Nafarroako Gobernuak osatzen ahal du Planean finkaturiko mailara iritsi arte.

Hala ere, Enplegurako Planeko beste ekintza batzuek, berriak izateagatik edo aurrekontu luzatuan finantzatzeko kontusailak osatzea ezinezkoa izateagatik, aparteko kredituak eta kreditu osagarriak behar dituzte. Lehenengoan artean energia berriztagarrietarako Prestakuntzarako

Zentro Nazionala, gaur egun eraikitzen ari dena, abian jartzeko gastuak daude. Izan ere, kontusail horri, Zentroa kudeatzeko aukeratzen den formularen arabera, gastu eta transferentzia arruntak aplikatuko zaizkio. Planean beste bi ekintza aurreikusten ziren laneko arriskuei aurrea hartzeko, hala nola, arlo honetako etengabeko prestakuntza eta laneko arriskuei aurrea hartzeko Foru Komunitateko ordezkariendako dirulaguntzak. Dirulaguntza horiek 2002rako luzatu den 2001eko aurrekontuko "Laneko arriskuei aurrea hartzeko ordezkari sektorialendako laguntzetako programa" deritzon kontusaila ordezten dute eta, hein handi batean, haren bidez finantzatu dira.

Kreditu osagarriari dagokienez, alde batetik, horien bidez Nafarroako Enplegu Zerbitzuari esku eman nahi zaio Enpleguari buruzko Nazioarteko Jardunaldiak antola ditzan, eta bestetik, Zerbitzu horrek enpleguko berariazko programetarako entitate publikoekin izenpetu duen Hitzarmena osoz bete dezan.

Neurri finantzario hauek Enplegurako Plana hertsiki betetzeko behar diren bestelako aurreikuspenekin osatzen dira, hala nola, Foru Lege honetako 4 eta 5. artikuluetan aipatzen direnekin. Azkenik, xedapen gehigarriaren bidez etengabeko prestakuntzarako ekintzak hobeki garatzen ahalko dira.

1. artikulua. Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, 2002-2004rako Nafarroako Enplegurako Planaren beharrak betetzeko, aparteko kreditu hauek ematen zaizkio:

– 300.506 euro energia berriztagarrietarako Prestakuntzarako Zentro Nazionala abian jartzeko. Aparteko kreditu hori 2002rako luzatu den 2001eko aurrekontuko "Energia berriztagarrietarako Prestakuntzarako Zentro Nazionala abian jartzeko gastuak" izeneko 880000-84400-2269-322202 kontusailaren bidez finantzatu da.

– 210.354 euro laneko arriskuei aurrea hartzeko programaren beharrak finantzatzeko. Aparteko kreditu hori 2002rako luzatu den 2001eko aurrekontuko "Laneko arriskuei aurrea hartzeko etengabeko prestakuntzarako ekintzak" izeneko 882002-84200-4709-322100 kontusailaren bidez finantzatu da.

– 180.304 euro laneko arriskuei aurrea hartzeko programaren beharrak finantzatzeko. Aparteko kreditu hori 2002rako luzatu den 2001eko aurrekontuko "Laneko arriskuei aurrea hartzeko Foru Komunitateko ordezkariendako dirulaguntzak, 1995eko Nafarroako lan harremanetarako sektorearteko itunaren babesean sortuak" izeneko 870000-83100-4810-315106 kontusailaren kontu finantzatu da.

2. artikulua. Kreditu osagarri hauek ematen zaizkio, 2002rako luzatu den 2001eko aurrekontuko kontusail hauen bidez finantzatu direnak:

– 60.101 euro, "Nafarroako Enplegu Zerbitzua" izeneko 880000-84000-2269-322200 kontusailaren bidez.

– 60.101 euro, "Nafarroako Enplegu Zerbitzuak enpleguko berariazko programetarako entitate publikoekin izenpetu duen Hitzarmena" izeneko 880000-84000-4459-322200 kontusailaren bidez.

3. artikulua. 1 eta 2. artikuluetan aipatzen diren aparteko kreditu eta kreditu osagarriak, 330.556 euro arte, 2002rako luzatu den 2001eko aurrekontuko "Laneko arriskuei aurrea hartzeko ordezkari sektorialendako laguntzetarako programa" izeneko 870000-83100-4810-315105 kontusailaren bidez finantzatu da eta gainerakoa, 480.810 euro, 2002rako luzatu den 2001eko aurrekontuko "Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa" izeneko 112000-11400-8700-000000 kontusailaren bidez.

4. artikulua. 2002rako luzatu den 2001eko aurrekontuko "Energia berriztagarrietarako Prestakuntzarako Zentro Nazionala abian jartzeko gastuak" izeneko kontusailari gastu arruntak ez ezik transferentzia arruntak ere aplikatzen ahalko zaizkio.

5. artikulua. 2002rako luzatu den 2002eko aurrekontuko "Europako Batasunaren fondoekin batera finantzaturiko enplegurako ekimenetarako ekintzak" izeneko 881002-84100-4810-322100 kontusaila eta "Etengabeko prestakuntza" izeneko proiektuko ekintzak, 1. kapitulukoak izan ezik, handitzen ahalko dira.

Xedapen gehigarria

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorrari buruzko ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legeko 18. artikuluko 2. idatz-zatian aurreikusiriko bermeak ez zaizkie aplikatuko Nafarroako Enplegu Zerbitzuak etengabeko prestakuntzarako INAFRE fundazioarekin izenpetu duen Hitzarmenaren ondoriozko ekintzetan parte hartzen duten prestakuntzarako entitateei.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru lege proiektua, Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituen

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1go.- Nafarroan etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatuko zaizkien moduluak ezarri eta etxebizitza erosteko laguntzak handitzen dituen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko martxoaren 8ko eguerdiko**

hamabiak arte luzatzea. Aipatu Foru Lege proiektua 2002ko otsailaren 4ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2gn.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko N-121-A errepidea hobetzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko N-121-A errepidea hobetzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1go.- Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko N-121-A errepidea hobetzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2gn.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroa eta Gipuzkoaren arteko N-121-A errepidea hobetzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

N-121-A errepidea, bideune guztietan, hobetzeko eskatu izan dute, etengabe, alde horretako biztanleek eta erabiltzaileek. Proposamen hori joan zen mendeko lehen herenean jarri zen abian eta ez du oraindik irtenbiderik izan.

Lesakan, 1997ko abenduaren 17an Nafarroako Gobernuak eta Gipuzkoako Diputazioak eginitako bileran erabaki zen alternatibei buruzko azterlanaren gaurkotzea eginaraztea. Hala egin zen,

1998ko lehen hiruhilabetearen, baina ez ziren ados jarri hura betetzeko moduz.

Harrigarria bada ere, titularitatearena da desadostasunik handiena eragiten duen gaia. Harrigarria diogu, titularitatearen gaia behin baino gehiagotan eta gune desberdinetan hizpide izan delako, eta ateratako ondorioa beti izan da komunikabideak zeharkatzen duen erkidegoarena dela errepidea.

1998az geroztik istripuen kopurua, baita hildakoak eragin dituztenak ere, nabarmen handitu da. Errepide horretan, halaber, ibilgailuen trafikoa asko gehitu da, batez ere Europatik heldu diren edo harantz doazen ibilgailu astunena.

Horregatik guztiagatik eta oraindik ere konponetze dagoen arazo horri erantzuna ematearren, honako lege proposamen hau aurkeztu dugu:

Artikulu bakarra. Nafarroako Gobernuak, haren lurralde esparruan, N-121-A errepidearen bikoizketa, 1998an alternatibei buruz eginitako azterlanaren arabera, lehenbailehen amaitzeko behar diren jarduketek ekinen die.

Jarduketa horiek 2006ko abenduaren 31 baino lehen egon beharko dute amaiturik.

Xedapen iragankorra

Europarekin lotzen duen komunikabide horren hobekuntzak jarraipena izanen duela bermatzeko, baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari Gipuzkoako Foru Aldundiari eskualda diezaion Gipuzkoa zeharkatzen duen egungo N-121-A errepidearen tartearen titularitatea. Eskualdaketa horren baldintza izanen da N-121-A errepidearen bikoizketa egitea lurralde horretan aipatutako Foru Aldundiaren kargura, lege honen artikuluko bakarrean adierazitako epean.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Batasuna Parlamentuko Taldeak Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1go.- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2gn.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Pertsona orok etxebizitza duina edukitzeko eskubidea oinarrizko giza eskubidea da, osasuna eta hezkuntzarako eskubideen parean jar daitekeena. Hortaz, administrazio publikoen betebeharrak da bermatzea eskubide hori Nafarroan bizi diren pertsona guztiei. Foru administrazioa eta udalak beharturik daude etxebizitzarako eskubide hori egia izan dadin lurzoruaren arloan behar diren aurreikuspenak egitera.

Nafarroako egungo errealitatea, ordea, etxebizitzaren arazoa konpontzetik urruti dabil, eta azken urteotan egoerak okerrera egin du nabarmen, bai merkatu libreko etxebizitza bai babestua asko garestitzearen ondorioz.

Babesturiko etxebizitzarako erreserbatu beharreko lurzoruaren aurreikuspena, Lurraldearen

Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 19/1994 Foru Legean udal planetarako eta Nafarroako Gobernuaren lurzoruaren arloko jarduketetarako ezarritakoa, nahikoa ez dela ikusi da, etxebizitza mota horretarako lurzoruaren eskaintzak azken lau urteotan ez duelako biderik eman etxebizitza babestuaren arloko etxebizitza planen ezta ehuneko 40 ere betetzeko.

Etxebizitzaren arazoa orokorra da gure lurralde osoan eta, beraz, beharrezkoa da lurzoruaren erreserbarako modulu berriak ezartzea, Nafarroako udalerrri guzti-guztietan etxebizitza babestuak eraiki ahal izateko. Udal bakoitzak lagundu behar du bere herriko biztanleen etxebizitza arazoa bideratzen.

Zoritzarrez, gure udalek kontrakoa egin dute maiz, finantza arazoek itota lurzoruaren ondare publikoa saldu baitute udal aurrekontuei aurre egin ahal izateko dirusarrerak lortzearen, etxebizitza babestuak sustatu beharrean.

Bestalde, 10/1994 Foru Legean ezarritako dentsitate mugak egokiak dira etxebizitza librearen kasuan eta ez, ordea, etxebizitza babestuen kasuan, sustapenak bideraezinak bihurtzen direlako urbanizazio kostuak direla-eta. Beharrezkoa da etxebizitza libreek eta babestuen arteko baliokidetzak ezartzea, etxebizitza mota hori sustatzen lagun dezaten.

Horrenbestez, Batasuna Parlamentuko Taldeak proposatzen du Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 20, 74 eta 265. artikulua aldatzea, etxebizitza babestuetarako dentsitate muga berriak eta udal planetarako etxebizitza babesturako erreserba modulu berriak, udalerrri bakoitzeko biztanle kopuruaren arabekoak, ezartzeko, baita udalen betebeharrak ere, batetik udal lurzoruaren ondarea eratzeko eta bestetik, lurzoruaren ondare publikoa besterenduz eskuratutako dirusarrerak lurzoruaren ondare publiko hori handitzen erabiltzeko.

1. artikulua. Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 74. artikulua aldatzen da, testu hau izan dezan aurrerantzean:

1. Udal planen barrenean sartu beharko dira zehaztutako batzuk, planeamenduak aurreikusiriko etxebizitzetarako eraikuntza berrien ondoko modulu hauek, gutxienez, babestutako etxebizitza motaren baterako izan daitezten:

a) Aurreikusitako biztanle kopurua 10.000tik gorakoa duten udalerrietan, etxebizitza berrien ehuneko 60.

b) Aurreikusitako biztanle kopurua 1.500etik 10.000ra bitartekoa duten udalerrietan, etxebizitza berrien ehuneko 50.

c) Aurreikusitako biztanle kopurua 1.500etik beherakoa duten udalerrietan, etxebizitza berrien ehuneko 30.

d) a), b) eta c) puntuetako aurreikuspenen % 50, gutxienez, babes ofizialeko etxebizitzetarako erabiliko da eta horietatik % 25 errenta babesturako.

2. Udal planak aurreikusiko du babestutako etxebizitza berrietarako lurzorua % 25, gutxienez, desjabetzapenaren bidez kudeatuko dela.

3. Aurreko idatz-zatietan aipatzen diren zehaztapenek indarra izanen dute planeamendua berrikusi arte. Udal planaren aldaketa puntualek ez dute jaitsaraziko aurreikusiriko etxebizitza babes-tuen kopurua.

2. artikulua. Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 20. artikulua aldatzen da, testu hau izan dezan aurrerantzean:

1. Lurzoru urbanizagarrien sektoreetan, sistema orokorretarako diren lurrak kanpo, hiri lurzorua exekuzio unitateetan, muga goren hauek aplikatuko dira hektarea bakoitzeko etxebizitzaren erakinei:

a) 50 etxebizitza libre edo, bestela, 5.500 metro koadro eraikitzeko, zuzenbidez hogeita bost mila biztanle baino gehiago dituzten udaletan.

b) 40 etxebizitza libre edo, bestela, 4.500 metro koadro eraikitzeko, bi mila biztanletik goiti eta hogeita bost milatik beheitiko udaletan, bai eta Iruña ondoko 1.000 biztanletik goitiko udaletan ere.

c) 35 etxebizitza libre edo, bestela, 4.500 metro koadro eraikitzeko, gainerako udaletan.

2. Salbuespen gisa, Lurraldearen Antolamendu eta Ingurumen kontseilariak arrazoitan oinarrituz baimena eman ahalko du, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den foru aginduaren bitartez, aurreko zenbakian aipatu mugak gainditu –herriaren hirigintzako gorabeherak horretarako bide ematen dutenean, Udalak proposaturik, Osoko Bilkuraren gehiengo absolutuz hala erabakita– eta gehienez ere 75 etxebizitza libre egiteko hektarea bakoitzeko aurreko zenbakiaren a) atalean eta 50 etxebizitza b) eta c) kasuetan.

Halaber, arrazoi bidez gainditu ahalko dira 1. zenbakian finkatu mugak, zaharberritu edo erreforma egiten den hiri lurzoruko unitateetan.

Inguruko eraikinen antzekoak izanen dira aprobetxamendua eta eraikuntzaren baldintza tipologikoak unitate horietan.

3. Exekuzio sektore edo unitate batean babes-turiko etxebizitza motaren bat eraikitzen denean, 1. idatz-zatian ezarritako dentsitateak gainditu egin ahalko dira, etxebizitza libre bakoitzeko babes ofizialeko 2 etxebizitza eta bestelako babesa duten 1,5 etxebizitza, etxebizitza libre bakoitzeko.

4. Planeamenduan finkatuko da zehazki etxebizitzaren dentsitatea, aurreko zenbakietan aurreikusitako mugen barrenean, etxebizitzaren ohiko tipologiari edo nagusi denari eta udal bakoitzeko hiri nahiz herri ezaugarriei begiratu.

5. Industrialde edo zerbitzualdeetan, eraikinek gehien hartu ahalko duten portzentaia, erregelamendu bidez zehaztuko diren horniduretakoak barne, ezin izanen da antolatuta den luraren % 50 baino handiagoa izan, sistema orokorretan salbu.

3. artikulua. Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legearen 265. artikulua aldatzen da, testu hau izan dezan aurrerantzean:

Eraketa. Ondare berezia.

1. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak eta udal guztiek bere lurzoru ondare publikoak eratu beharko dute, terreneen merkaturia erregulatu, ekimen publikoko ekintzetarako lurzoru erreserbak eskuratu eta planeamendua gauzatea errazteko.

2. Betiere, terreneak besterenduz eta administrazioari dagokion aprobetxamenduaren orde ez beste ezertarako.

Xedapen iragankorra

Lehenbizikoa. Udal planeamendu indardunak duten udalerriek haren zehaztapenak egokitu beharko dituzte, lege hau onesten denetik bi urteko epean, gehienez.

Egokitzapena egin bitartean, lege honen 2 eta 3. artikulua zuzenean aplikatuko dira udal plan indardun guztietan, modu honetan:

a) Etxebizitzetarako lurzoru urbanizagarriko sektoreek eta hiri lurzoruko exekuzio unitateek,

karga eta etekinen banaketa onetsirik ez badute, lege honetan aurreikusiriko etxebizitza babestuen erreserbak eginen dituzte plan partzial bat edo plan berezi bat tramitatuz, lurzoru urbanizagarria den edo hiri lurzorua den, hurrenez hurren.

b) Etxebizitzetarako lurzoru urbanizagarriko sektoreetan eta hiri lurzoruko exekuzio unitateetan, karga eta etekinen banaketa onetsirik badute, eta horietan aurreikusirik dauden etxebizitzaren % 50erako baino gehiagotarako eraikitze lizentzia eman gabe dagoela, gainerako etxebizitzaren araberaren eginen dira lege honetan aurreikusitako erreserbak, eta etxebizitza libreak etxebizitza babestu bihurtuko dira plan partzial bat edo plan berezi bat tramitatuz, lurzoru urbanizagarria den edo hiri lurzorua den, hurrenez hurren.

Bigarrena. Tramitatzen ari diren udal planek, edozein delarik haien egoera, bere zehaztapenak egokituko dituzte lege honen aurreikuspenetara. Egokitzapena agiria jendaurrean egon ondotikoa baldin bada, berriz jarriko da jendaurrean eta berriz eman beharko zaio behin-behineko onespena.

Xedapen indargabetzailea

Foru lege honetan xedatutakoaren kontrako maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak indarrak gabe gelditu dira.

Azken xedapena

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta betearazteko behar diren arauzko xedapen guztiak eman ditzan.

Foru Lege proposamena, alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1go.- Alargun pentsioetarako laguntza bereziei buruzko Foru Lege proposamenari zuzenketak aurkezteko epea **2002ko apirilaren 9ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu Foru Lege proposamena 2001eko irailaren 24ko 93. Nafarroako

Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2gn.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeri buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzekoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2002ko otsailaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeri buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2002ko irailaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1go. Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeri buruzko martxoaren 5eko 2/1993

Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

2gn. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Batzordearen esku uztea.

3gn. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2002ko martxoaren 25eko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzkoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2002ko otsailaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, Ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2002ko urriaren 8ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1go. Ezgaituak lan merkatuan sartzeari buruzko Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

2gn. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordearen esku uztea.

3gn. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2002ko martxoaren 25eko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzekoa

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Biltzarrak, 2002ko otsailaren 21ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztu eta 2002ko urriaren 8ko 99. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145, 149 eta 150. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1go. Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi

karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena ohiko prozeduraz bideratzea.

2gn. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Funtzio Publiko eta Barne Batzordearen esku uztea.

3gn. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat irekiko da, 2002ko martxoaren 25eko eguerdiko hamabietan** bukatuko dena. Epe horretan, Erregelamenduko 126 eta 145 artikuluetan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritza, abeltzaintza eta elikadura arloetako laborategi ofizial bateratua sortzekoa

TRAMITERA EZ ONARTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritza, abeltzaintza eta elikadura arloetako laborategi ofizial bateratua sortzeko foru lege proposamena ikusita, foru parlamentari José M^a Aierdi Fernández de Barrena jaunak aurkeztua, Biltzarreko Erregelamenduko 145.2 artikulua xedatutakoarekin bat, ERABAKI DA:

1go. Nafarroako Foru Komunitateko nekazaritza, abeltzaintza eta elikadura arloetako laborategi ofizial bateratua sortzeko foru lege proposamena tramitera ez onartzea.

2gn. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Heroinak tratamendu terapeutiko gisa duen eraginkortasunari buruzko entsegu klinikoak egiteari buruzkoa

TRAMITERA EZ ONARTUA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Heroinak tratamendu terapeutiko gisa duen eraginkortasunari buruzko entsegu klinikoak egiteari buruzko foru lege proposamena ikusita, Batasuna Parlamentuko Taldeak aurkeztua, Biltzarreko Erregelamenduko 145.2 artikulua xedatutakoarekin bat, ERABAKI DA:

1go. Heroinak tratamendu terapeutiko gisa duen eraginkortasunari buruzko entsegu klinikoak egiteari buruzko foru lege proposamena tramitera ez onartzea.

2gn. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, generoko indarkeria gainditzeko eta emakumeen parte-hartze politikorako aukera-berdintasunaren politikari buruzkoa

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko jabeldura aurkeztu zuen: "Jabeldura, generoko indarkeria gainditzeko eta emakumeen parte-hartze politikorako aukera-berdintasunaren politikari buruzkoa".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, aipatu jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritako arekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, 179. artikulua eta hurrengoak aplikaturik, jabeldura bat aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko gauzatzen dituen politikari buruzkoa, Nafarroako Osoko Bilkuran tramitatzeko.

Jabelduraren justifikazioa

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak kezka adierazi nahi du emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna lortzeko Nafarroako Gobernuak gauzatzen duen politika dela eta, talde honen iritziz gure erkidegoan ez gaudelako berdintasunera daraman bidearen helmugara ailegaturik oraino, ez dugulako gure gizarte eskubideen maila gorena erdietsi, eta erakundeetatik berdintasunaren aldeko diskriminaziozko neurriak bultzatzen segitu behar dugulako.

Gure gizarte honetan generoko estereotipoak eta paperak errepikatzen dira oraindik, emakumeen partaidetza urria da arlo askotan, lanpostu eze-gonkorrak eta diskriminaziozko lansariak emaku-

meek pairatzen dituzte nagusiki, txirotasuna bezala. Batez beste, astero hiltzen dute emakume bat Espainian, emakume izateagatik soilik, oraindik ere badirelako emakumeen bizitzaren gainean erabakiak hartzeko eskubidea dutelakoan dauden pertsonak.

Gaur egun gero eta zailagoa da aukera berdintasunaren aldeko borroka aldarrikatzea, lorturiko aurrerapenak bistakoak dira eta: botoa emateko eskubidea, hezkuntza, osasun laguntza jasotzekoa... egun oinarritzotzat jotzen ditugunak eta emakumeoi, bereziki gazteei, ohikoa eta eguneroa iruditzen zaizkigunak, ahalegin handien emaitza badira ere, funtsezko gai honen alde haien dedikazioa, grina eta lana eskaini duten milaka emakume feminista, baita gizon ere, konprometiturik esker.

Bestalde, desmobilizazio kanpaina gogor batean sarturik dago gizartea, eskuin nafarraren eta espainiarraren eskutik: etengabekoak dira emakumeen egoera "ez dela hain txarra" eta emakumeen aldeko hainbeste ahalegin eta laguntza programa beharrezkoak ez direla dioten mezuak. Are gehiago, emakumeak argi eta garbi diskriminatzen dituzten proposamenak —pentsioena, adibidez— luzatzera ausartzen dira. Ondoren zuzenduta ere, kaltea egina dago.

Laburturik, aspaldi honetan emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna lortzen joateko abiadura asko moteldu da eta horrek gure kezka eragin du, emakumeen eskubideen aldeko borrokarekin konpromisoa dugun pertsonak garen heinean. Gure iritzia da, horrenbestez, Nafarroako Parlamentuak eztabaidatu behar duela Nafarroako Gobernuak arlo horretan daraman politika, gertatzen ari dena salatzeke eta egunez eguneko lanari ekinez aukera berdintasun egiazkoa erdiesteko.

Proposatzen dugun jabeldura

Gobernuari jabeltzen gatzazkio jakiteko zein den aukera berdintasunaren alde egungo egoerarako daraman politika eta, zehazki, generoko indarkeria gainditu eta emakumeen partaidetza

politikoa eta lan esparruan genero berdintasuna lortzeko darabilena.

Iruñean, 2002ko otsailaren 21ean

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Jabeldura, Nafarroako Gobernua aurrera eramaten ari den politika ekonomikoari buruzkoa,

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko jabeldura aurkeztu zuen: "Jabeldura, Nafarroako Gobernua aurrera eramaten ari den politika ekonomikoari buruzkoa,".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, aipatu jabelduraren biderapena onestea erabaki zuen. Biltzarreko Erregelamenduko 180. artikuluan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

JABELDURAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, 179. artikulua eta hurrengoak aplikaturik, jabeldura bat aurkeztu du, Nafarroako Gobernua aurrera eramaten ari den politika ekonomikoari buruzkoa, presako tramitazioa eman dakion Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran.

Jabelduraren justifikazioa:

Nafarroako Gobernuaren balorazio ekonomikoaren berri izanik ere, egia esan, azken udatik hona zenbait datu kezkarri ezagutu ditugu Nafarroako bilakaera ekonomikoari buruz:

1. Nafarroako koiuntura ekonomikoari buruzko datuak, Euskadiko Kutxak emanak, familiaren errenta erabilgarria jaitsi egin dela diotenak.

2. Espainiako gizarte urtekaria. Bertan, Espainiarekin alderaturik, Nafarroa lehendabiziko tokitik bosgarrenera jaitsi da gizarte ongizatearen ratioei dagokienez, eta horrez gain, "lan baldintzak" izeneko atalean Nafarroak jaso duen puntuazioa bi izan da, Otik 10era bitarte.

3. Enplegu mailen eta tasaren bilakaerak 2001ean eta 2002ko urtarrilean agerian uzten du

gobernuaren helburuak ez direla bete, ezta Nafarroan ere.

4. Nafarroan ibilgailuen fabrikazioaren sektoreak duen egoerak –industria jarduera bakarreko ereduaren ezaugarriak baititu–, Landabengo Volkswagen lantegiaren lan egutegiari, ekoizpen helburuei eta kontratazio aurreikuspenei buruzko albisteek eta horren osagarri diren enpresa gehienetako lan harremanen arautze eskasak segurtasun ezaz eta etorkizunaren gaineko zalantzaz beteriko sentsazioa eragiten dute.

5. Azkenik, Estatistikaren Institutu Nazionalak joan zen otsailaren 20an argitaratu zituen kontabilitate nazionalari buruzko datuek ondokoak baieztatu dituzte: kontsumoaren eta inbertsioaren moteltzea, jardueraren jaitziera eta produktibitatearen galera, BPGari barne eskaerak eginiko ekarpen txikiagoa eta enplegu mailaren eta ekonomia-aren hazkunde errealearen jaitziera. Bistakoa dirudi Nafarroaren bilakaera ekonomikoa bat heldu dela ekonomia nazionalaren ibilerarekin.

Aurreko guztiari, gainera, 2001eko aurrekontu ekitaldia ixtean izandako datuak gehitu behar zaizkio, datu horietan, Gobernuak dioenez, defizit nabarmena baitago.

Proposatzen dugun jabeldura:

Gobernuari, departamentu guztietan eragina duenez lehendakariari zuzenduta, jabeltzen gatzazkio jakiteko zein den aurrera eramaten ari den politika ekonomikoa, aurreko puntuen aurrean, zein diren esku artean dituen ekonomia-aren bilakaerari buruzko aurreikuspenak eta zein jarduketa abiarazi edo pentsatu dituen Nafarroako Foru Komunitatearen egoera ekonomikoaren bilakaeraren ondorioak arintzeko.

Iruñean, 2002ko otsailaren 22an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du euskararen normalkuntzari dagokionez Nafarroako Gobernuaren egiten ari den hizkuntza politika

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak arbuiatzen du euskararen normalkuntzari dagokionez Nafarroako Gobernuaren egiten ari den hizkuntza politika".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Gobernuari aurreko Osoko Bilkuran jabeldura aurkeztu ondoren, ondoko mozioa aurkeztu du hurrengo Osoko Bilkuran eztabaida eta bozka dadin.

Joan den otsailaren 14an egindako Osoko Bilkuran, jabeldura bat aurkeztu zitzaion Nafarroako Gobernuari ezagutzeko hizkuntza europarren egoerari buruz egiten ari den inkesta soziolinguistikoa Nafarroan nola egokitzen zaion euskara normalizatzeari.

Gobernuaren azalpenek egokitasun horren aldeko argudioak adierazi ez eta agerian utzi

zuten Gobernuak inkesta horretarako deialdia zerbitzu juridikoek berek eginiko txosten juridikoaren aurka egin zuela. Beste behin, aurreko beste batzuetan gertatu den bezala, jabeldurak argi eta garbi utzi zuen zein den Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika bideratzen duen irizpidea, betiere euskararen, Nafarroako hizkuntza berezkoaren, normalizazio linguistikoaren helburutik oso urrun.

Horri dagokionez, oso argi geratu zen jabelduran esku hartu zuten talde guztien jarrera. Talde guztien ustez, hizkuntza politikaren izaerak euskararen normalizazioarekin hertsiki loturik joan behar luke, politika hori Nafarroako berezko hizkuntza ez diren beste hizkuntza batzuen hezkuntza eta prestakuntza politikekin nahastu gabe.

Horrenbestez, UPNko gobernuak berriki aurrea eramandako jarduketa hau guztiz arbuigarria dela esan daiteke, eta borondate politiko argi batetik datorrela; alegia, euskarak lekua galtzea Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikan.

Hori guztia dela eta, kontuan harturik Nafarroako Gobernuak euskararen arloan eman dituen gainerako urratsak, ondoko erabaki proposamena aurkeztu du gure taldeak:

1. Nafarroako Parlamentuak arbuiatu egiten du Nafarroako Gobernuaren euskararen normalizazioari buruz egiten ari den hizkuntza politika.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiatzen du Nafarroako berezko hizkuntzen errespetua, babesa eta normalizazioa helburu izanen dituen bestelako hizkuntza politika bat aurrera eraman dezan.

Iruñean, 2002ko otsailaren 18an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babestu, sustatu eta bultzatzen du hurrek amaren esnea hartzea

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak babestu, sustatu eta bultzatzen du hurrek amaren esnea hartzea".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, hurrek amaren esnea hartzea babestu, sustatu eta bultzatzen duen mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena

Amaren esnea hartzea da eta izan da gizakiak elikatzeko modu unibertsala, gizateriaren hastapenetatik hasita gaur egunera arte. Halere, gure herrialdean, beste herrialde industrializatu askotan bezalaxe, murrizten joan den praktika izan da. Gaur egun, Osasunerako Mundu Erakundea (OME) eta Nazio Batuen Haurren Laguntzarako Fundoa (UNICEF) bultzatzen ari dira elikadura modu hau esparru guztietan, "Haurren ospitale

laguna" ekimenaren barrenean sarturik dauden ama-haurrentzako ospitaletara bideraturik bereziki.

Herrialde industrializatueta azken bost urteotan eginiko azterlanek erakutsi dute amaren esnea hartzeak loturak dituela haurrak hiltzeko arriskuaren jaitsierarekin, infekzioen bidezko gaitasunen jaitsierarekin eta inmunitatea areagotzearekin, besteak beste, bai eta bularreko eta obarioko minbizia eta osteoporosia edukitzeko arriskua ere gutxitzen duela amen artean.

Bestalde, Estatuak bermatu behar ditu beharrezkoak diren tresna guztiak, amaren esnearen aldeko hautua egiten duenak eskura izan ditzan aukera guztiak, Osasunerako Mundu Erakundearen gomendioekin heldu den informazioa eta behar den sostengua. Era berean, ziurtatu behar du amek hurrei bularreko esnea emateak ez dakarrela berarekin emakumeek etxetik kanpo lan egiteari utzi beharra, ezta pertsona gisa garatzea bizitzaren esparru guztietan.

Horregatik guztiagatik, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak honako mozio hau aurkeztu du:

1. Amaren esnea hartu eta ematea babestu, sustatu eta laguntzea OMEren eta UNICEFen irizpideei jarraikiz.

2. Nafarroako Foru Komunitateko ospitale guztietan OMEk eta UNICEF-ek bultzaturiko "Haurren ospitale laguna" izeneko ekimena aurrera eramateko behar diren baliabideen alde egitea.

3. Nafarroako Parlamentuari ebazpen hau hiru hilabeteko gehieneko epean bete izanaren berri ematea.

Iruñean, 2002ko otsailaren 19an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela atzerriko hizkuntzen irakaskuntzaren kalitatezko eskaintza bat bermatzea, horretarako Hizkuntza Eskola Ofizialari behar diren bitartekoak emanez

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du beharrezkoa dela atzerriko hizkuntzen irakaskuntzaren kalitatezko eskaintza bat bermatzea, horretarako Hizkuntza Eskola Ofizialari behar diren bitartekoak emanez".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Batasuna Talde Parlamentarioak Ganbararen Arautegian ezarritakoaren babespean, honako mozio hau aurkezten du, osoko bilkuran eztabaidatua eta onartua izan dadin.

Azkeneko garaiotan atzerriko hizkuntzen ikaskuntza eguneko gai-ordenean dago hemen eta han. Herrialde ezberdinetako pertsonen arteko hartu-emanak areagotzen ari diren honetan, atzerriko hizkuntzen ikaskuntza nolabaiteko "klitxea" bilakatu da. Batasunatik ez dugu bat egiten pentsamendu bakarrak ezarritako aurrerapenaren kontzeptuarekin ez eta globalizazio neoliberalarekin. Guk herrien autodeterminazioan eta herrien arteko hartu-eman horizontal eta orekatsuetan sinesten dugu. Zentzu honetan, atzerriko hizkuntzen ikaskuntzari garrantzia ematen diogu, beste kolektibitateekin komunikatzeko tresna gisa.

Era berean, Batasunak arlo publikoari garrantzia berezia ematen dio bere praktika politikoan, eta garrantzia berezia ematen dio hizkuntzen ikaskuntzari dagokionean ere. Arlo publikotik atzerriko hizkuntzen ikaskuntzarako eskaintza egokia bermatu behar delakoan gaude, hala kuantitatiboki (dagoen eskari guztiari erantzuna emanez) nola kualitatiboki (beharrezkoak diren bitarteko pedagogikoak bermatuz).

Gaur egun Nafarroan atzerriko hizkuntzen ikaskuntzari arlo publikotik ematen zaion trataera, ordea, eskasa da. Gobernuari, Hezkuntza eta Kultura kontseilariari eta bestelako karguei ahoa atzerriko hizkuntzen garrantziaz betetzen bazaie ere, Nafarroako Hizkuntza Eskolaren egoera (non atzerriko hizkuntzen eta euskararen ikaskuntza bideratzen den) kezkarria da oso, Hezkuntza Batzordeak Otsailaren 8an eginiko bisitaldian antzeman ahal izan genuen bezala: ez dago liburutegirik, biltzeko gela aproposik, ekitaldi-aretorik, "hizkuntza-laboretegi" nahikorik, bitarteko informatiko nahikorik... Zorionez, Hizkuntza Eskolaren arduradunek lan eskerga egiten dute kalitatezko zerbitzua bermatzeko asmoz, baina azpiegitura eskasiarekin amaitu beharra dago lehenbailehen. Izan ere, badirudi Nafar Gobernuak atzerriko hizkuntzetaz euskarari hizkuntza politikarako aurrekontutik dirua kentzeko baino ez dela oroitzen, bien bitartean Hizkuntza Eskolarekiko abandonoa praktikatzan duelarik.

Beraz, Batasuna Talde Parlamentarioak honako ebazpen-proposamen hau aurkezten du:

"Nafarroako Parlamentuak, atzerriko hizkuntzen ikaskuntzaren garrantziaz jabeturik, arlo publikotik kalitatezko eskaintza bermatzearen beharra adierazten du. Zentzu honetan, Nafarroako Hizkuntza Eskolak eskariari behar bezala erantzuteko beharrezkoak dituen baliabideetaz hornitzearen beharra azpimarratzen du."

Iruñean, 2002ko otsailaren 21a

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da telefono deiak hartzeko zerbitzua berriz ere Ekonomia eta Ogasun Departamentuko funtzionarioen eskuetan uzteko

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da telefono deiak hartzeko zerbitzua berriz ere Ekonomia eta Ogasun Departamentuko funtzionarioen eskuetan uzteko”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, Nafarroako Gobernua telefono deiak hartzeko zerbitzua berriz ere Ekonomia eta Ogasun Departamentuko funtzionarioen eskuetan uzteko premiatzen duen mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena

Nafarroako Gobernuaren araudiak, besteak beste, honako eginkizun hauek esleitu zizkion Zergadunari Laguntza eta Argibidea Emateko Zerbitzuari (353/1999 Foru Dekretuaren 21. artikulua):

“Nafarroako Ogasunak ordainarazten dituen zergei buruzko kontsulta eta erreklamazioen gainean, administrazio arloari dagokionez, zergadunari laguntza eta argibidea ematea.”

Zergadunari Laguntza eta Argibidea Emateko Zerbitzuak bi atal ditu (353/1999 Foru Dekretuaren 28. artikulua):

- Zergadunari Laguntza Emateko Atala.
- Argibideetarako eta Eskualdeko Bulegoen Atala.

Zergadunari Laguntza Emateko Atalaren eginkizunak, besteak beste, hauexek dira (353/1999 Foru Dekretuaren 46. artikulua):

- “Nafarroako Ogasunak ordainarazten dituen zergei buruzko kontsulta eta erreklamazioen gainean, administrazio arloari dagokionez, zergadunari laguntza eta argibidea ZUZENEAN ematea.”

Argibideetarako eta Eskualdeko Bulegoen Atalak eginkizun hauek ditu, besteak beste (353/1999 Foru Dekretuaren 47. artikulua):

- “Nafarroako Ogasunak ordainarazten dituen zergei buruzko kontsulta eta erreklamazioen gainean, administrazio arloari dagokionez, zergadunari laguntza eta argibidea ematea telefono bidez.”

Telefono deiak hartzeko zerbitzuaren pribatizazioa, Gobernuak onetsitakoa, haren arauen kontra doa eta aurrekari bat da pentsatzeko aurrerago ere, Gobernuaren iritziz kasu honetan izan diren arrazoi berdinengatik, pribatizatu daitekeela “zergadunari laguntza eta argibidea zuzenean” emateko zerbitzua. Eta mugarik gabe horrela arituko dela funtzio publikoa desagerrarazi arte.

Aspaldi honetan zabaldu den informazioak dienez 74 lanpostu sortuko dira Nafarroako Tributu Ogasunean eta haietako bat ere ez da zergadunen telefono deiak hartzeko zerbitzurako, beraz, Gobernuak, nahita, betiko mantendu nahi du giza baliabideen eskasiaren egoera, pribatizatorako arrazoi gisa ere erabili duen egoera berbera. Gure ondorioa da Gobernuak erabakita daukala zerbitzu hori behin betikoz pribatizatzea.

Langileen batzordeak proposatu du, bestalde, funtzio publikoari ematea herritarrek administrazioari eskatzen dizkieten zerbitzuak emateko behar diren giza eta gauza baliabideak. Zerbitzu horien konfidentzialtasuna erabat bermaturik egon behar da, kontuan harturik ze informazio mota den.

Era berean, langileen kontsentsu aktak dio Atento enpresari haren zerbitzuen truke ordaintzen zaion diruarekin, gehi zergadunari dei horien truke kobratzen zaienarekin –deiak probintzien artekoak baitira, baina probintzia barrenekoak balira bezala ordaintzen dira, eta aldea Gobernuaren kargu doa–, administrazioan langile gehiago

jartzeko aukera egonen litzateke, egun daudenekin batera ziurta dezaten herritarrek eta administrazioari langileek nahi duten zerbitzu egokia ematen dela.

Hori dela-eta aurkeztu dugu honako mozio hau:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du tributu gaiei buruzko telefono

deiak hartzeko zerbitzua berriz ere Ekonomia eta Ogasun Departamentuko funtzionarioen eskuetan uztera, eta horretarako behar diren lanpostuak sortitzan eta ez dezan zerbitzu hori kontrata edo azpikontrata enpresa, entitate edo partikularrekin.

Iruñean, 2002ko otsailaren 22an

Eleduna: Juan José Lizarbe Baztán

Adierazpen politikoa, Mendebaldeko Saharan erreferenduma egitearen aldekoa

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, ondoko adierazpen politikoa onetsi zuen:

“1go. Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du biltzar hau, aho batez, NBEk babesten duen erreferenduma egitearen alde dagoela, lehenago ere askotan adierazi duen bezala.

2gn. Europako Batasuna eta haren kide diren estatuak premiatzen ditu esku-hartze aktiboa izan dezaten arazoari irtenbidea bilatzen, eta horretara-

rako balia dezaten Espainiako Gobernua izanen dela Europako Batasunaren lehendakaritzan 2002ko lehen seihilekoan.

3gn. Adierazpen hau igortzea Europako Batasuneko lehendakaritzara, NBEko idazkari nagusiari eta Saharar Errepublikak Nafarroan duen ordezkariari.”

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria, José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Galdera, Zabalguneko Oinarrizko Osasun Laguntzako Etxeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak Zabalguneko Oinarrizko Osasun Laguntzako Etxeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko osasun arloko eldun M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egin du, idatzizko erantzuna eman dakion.

1999az geroztik, Zabalguneko bizilagunak Conde Oliveto kaleko eraikinean dagoen osasun etxera joaten dira, huraxe izan baitzen hartutako behin-behineko konponbidea, 2. zabalguneko bizilagunei gustatu ez bazitzaieen ere. Behin-behineko osasun etxe horretan laguntza hartzen duten biztanleak, zifra ofizialen arabera, 19.185 dira: % 10 pediatria zerbitzuaz baliatzen dira eta % 26 65 urtetik gorakoak dira. Ehuneko hori aldakorra da, etxebizitza hutsetara etorkinen familiak etortzen direlako. Une hauetan, kalkulaturik dago alde horretan 21.000 pertsonatik gora bizi direla.

Urte hasieran, komunikabideei jakinarazi egin zitzaieen osasun etxe berriaren proiektua, Zabalguneko biztanleen premiei ez ezik Hegoaldeko Planaren lurretan Iruñeak izanen duen zabalgune berriko bizilagunenei ere erantzun beharko diona aurrerago. Bistan da pertsonen kopurua nabarmen handituko dela etorkizun hurbilean.

Kontuan harturik biztanleak gero eta gehiago direla, zaharren kopurua handia dela eta eremu geografikoaren hedadura traba izanen dela zahar asko Agoitz kaleko orubeko oinarrizko osasun laguntzako zentrorra jotzeko, bizilagunek uste dute beharrezkoa izanen litzatekeela beste osasun etxe bat, osagarria edo azpikoa, edukitzea oinarrizko osasun laguntzako alde horretan, Barañainen bezala.

Kontuan harturik biztanleak gero eta gehiago direla, zaharren kopurua handia dela eta eremu geografikoaren hedadura traba izanen dela zahar asko Agoitz kaleko orubeko oinarrizko osasun laguntzako zentrorra jotzeko, bizilagunek uste dute beharrezkoa izanen litzatekeela beste osasun etxe bat, osagarria edo azpikoa, edukitzea oinarrizko osasun laguntzako alde horretan, Barañainen bezala.

Horregatik guztiagatik hauxe jakin nahi dugu:

1) Oinarrizko osasun laguntza emanen al da Agoitz kaleko osasun etxe berriaren mende egonen den osasun etxe osagarri edo azpiko baten bidez, Zabalguneko bizilagunek 2000ko martxoan eskatu zuten bezala?

2) Pentsatu al da egungo behin-behineko kokalekua, Conde Oliveto kalekoa, edo Zabalguneko beste edozein osasun eraikin baliatzea osasun etxe osagarri edo azpiko hori kokatu eta Agoitz kaletik urruti bizi diren Zabalguneko biztanleei oinarrizko osasun laguntza emateko?

3) Ba al du Osasun Departamentuak planik Agoitz kalean berriz elkartzeko SOS Nafarroa eta Babes Zerbitzuaz gain, egun Leire kalean dauden beste zerbitzu generalista batzuk ere?

Iruñean, 2002ko otsailaren 18an

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Galdera, Bideko Ama Birjina Ospitaleko ur-instalazioak eta hodiak berritzeari buruzkoa

BATASUNA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, Batasuna Parlamentuko Taldeak Bideko Ama Birjina Ospitaleko ur-instalazioak eta hodiak berritzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Batasuna Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galderak aurkeztu ditu, Osasun Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Joan den udan, Bideko Ama Birjina Ospitalean izandako legionelosi agerpen batek 19 pertsona gaixotu zituen; haietako 6 agerpen horrek iraun zuen bitartean hil ziren. Joan den irailean Foru Parlamentuko Osasun Batzordean izandako agerraldian, Osasun kontseilariak aditzera eman zuen zentroko ur beroaren sistema zaharra izateak eta haren diseinuaren zenbait ezaugarri eragina izan zutela, eta egitura-arazo bat zegoela; hori zela eta, Departamentuak ur bero sanitarioko instalazioak eta hoditeria berritzeari ekinen omen zion berehala, haien funtzionaltasuna hobetu eta aurreneurri eta kontrol arau berrietara egokitzeko.

Osasun kontseilariak berak joan den ostiralean aditzera eman zuen obra horiei ekin behar zitzaien, haiei buruzko datu gehiagorik eman gabe. Kontuan harturik legionella agerpenak, 6 pertsonen heriotza ekarri zuen gertakari triste izateaz gainera, gizartean asaldura handia eragin zuela, gure taldeak uste du beharrezkoa dela ezagutzea Bideko Ama Birjina Ospitalean aurrera eraman diren jarduketak guztiak eta ea haietan guztietan legionella agerpen gehiago izan ez dadin eragokian jokatu den.

Hori guztia dela eta, ondoko galderak egin ditu gure taldeak:

Obren ezaugarriei dagokienez:

1. Noiz egin dira Bideko Ama Birjina Ospitaleko ur bero sanitarioko instalazioak eta hoditeria berritzeko obrak?

2. Instalazioen eta hoditeriaren berritze hori erabatekoa izan al zen? Adierazi zehazki zer ordeztu den.

3. Aurreneurri buruzko zer arau aplikatuta egin da obra erabilitako materialei eta lan egiteko metodoei dagokienez?

4. Nola egin da obra? Bateragarri egin al dira obrak eta osasun zentroaren eguneroko jarduera?

5. Obrak egiteko zein epe zegoen eta zenbat denbora behar izan da? Obra proiektuaren kopia eta haren ziurtagiria nahi ditugu.

6. Nafarroako Osasun Zerbitzuko zein langilek gainbegiratu dituzte obrak hasieratik bukatu diren arte?

Obra adjudikatzeko prozedurari buruz

7. Zein prozedurari jarraitu zaio obra adjudikatzeko? Zergatik?

8. Zein enpresek erakutsi dute interesa obrak egiteko? Zein enpresa izan da edo izan dira azkenean adjudikazioa hartu dutenak eta zein lan egin du bakoitzak?

9. Enpresa adjudikazio-hartzaileek azpikontraturiko enpresarik aritu al da? Adierazi zein enpresa azpikontratatu diren eta zeinek azpikontratatu dituen. Aipatu, gainera, obra osoaren zein zati egin duten enpresa horiek.

10. Zein izan da Bideko Ama Birjina Ospitaleko ur bero sanitarioko instalazioak berritzeko obra edo obrak adjudikatzeko prezioa?

Galdera hauetako bakoitzari berariaz erantzuteko eskatzen dugu, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritako epean.

Iruñean, 2002ko otsailaren 18an

Eleduna: Joxe Fernando Barrena Arza

Galdera, euren goi karguen izendapenen berri eman ez duten sozietate publikoei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI CARLOS CRISTOBAL GARCIA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean egindako bilkuran, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak euren goi karguen izendapenen berri eman ez duten sozietate publikoei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko Carlos Cristóbal jaunak, Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeko eledunak, Erregelamenduaren 184. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz, eskatu du tramitatzea honako galdera hau, Nafarroako Gobernuak, 2002ko otsailaren 8an, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei

buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legean eta horien jardueren eta interesen erregistroa eta haren funtzionamendua arautzen dituen urtarrilaren 7ko 2/1997 Foru Dekretuan ezarritakoa betetzeko jakinarazitako informazioari buruzkoa. Galdegileak idatziz erantzutea eskatu du.

Informazio hartan zehazten zen 3 sozietate publikok ez dutela bete beren zuzendaritza organoetako goi karguen hautaketa eta izendapenak jakinarazteko betebeharra.

Hori dela eta, hauxe galdetzen diogu Nafarroako Gobernuari:

- Zein dira beren zuzendaritza organoetako goi karguen hautaketa eta izendapenak jakinarazteko betebeharra bete ez duten hiru sozietate publiko horiek?

- Ba al daki Gobernuak zein izan diren ez betetzeko arrazoiak?

- Zein dira arrazoi horiek, baldin badakizki?

Iruñean, 2002ko otsailaren 19an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

G Saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Itzulpen lagunduko Trados programa ezartzeko aholku-emate teknikoko zerbitzu bat esleitzeko proposamena

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuak buruzko ekainaren 16ko 10/98 Foru Legeko 97.3 artikulua ezarritakoa betez, jakinarazten da Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 25ean hartutako Erabakiaren bidez, ondoko kontratua esleitu duela:

– Kontratuaren xedea: Itzulpen lagunduko Trados programa ezartzeko aholku-emate teknikoko zerbitzu bat kontratatzea.

– Adjudikazio modua: Prentsan iragarritako prozedura negoziatua.

– Kontratuaren prezioa: 25.700 euro (BEZa barne).

– Egiteko epea: 3 hilabete.

– Esleipen hartzailea: Xarelan Multimedia, SL.

Iruñean, 2002ko otsailaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat..... 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 1,14 »	